

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetzak jardunaldi tekniko bat antolatu du enpresei eta instalazioei Produktu Kimikoak Biltegitratzeko Araudi berria ezagutarazteko

Azaroaren 17an izango da, Landabenen, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko ekitaldi-aretoan

Osteguna, 2017.eko azaroak 2

Joan den urriaren 25ean, produktu kimikoak biltegitratzeko instalazioetako segurtasun industrialarekin erlazionatutako errege-dekretu berria jarri zen indarrean, eta, hura ezagutarazteko, Nafarroako Gobernuo Energia, Meatze eta Industria Segurtasun Zerbitzuak, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarekin eta Babes Zibileko Zerbitzuarekin batera, jardunaldi tekniko bat egingo du azaroaren 17an, Landabenen, Institutuaren ekitaldi-aretoan.



Informazio-jardunaldi teknikoaren kartela

Institutuko Laneko Arriskuen Prebentzio Ataleko buru Virginia García Oséseki emango dio hasiera jardunaldiari. Bertan, produktu kimikoak biltegitratzeko araudi berria indarrean jartzeari buruz sor litezkeen zalantzei erantzuten saiatuko dira. Horretarako, Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioko Industria Kalitate eta Segurtasuneko Zuzendariorde Nagusiko zerbitzuburu Emilio Almazán Morok hartuko du parte, eta produktu kimikoak biltegitratzeko aurreko araudiarekin alderatuta izan diren aldaketa nagusiak eta araudi berriaren alderdi nabarmenenak azalduko ditu.

Jardunaldiaren egitarauan ageri denez, ITC-APQ-10 jarraibide tekniko osagarri berriaz ere hitz egingo da; haren arabera, produktu kimikoak ontzi mugikorretan gordeko dira, eta koordinazio-lanak egingo dira arrisku kimikoa duten istripuak gertatuz gero. DENIOS Academy enpresako zuzendari eta ITC-APQ-10 idazteaz arduratu den azpitaldeko kide Marta Mendoza Belio eta Babes Zibileko Zerbitzuko segurtasun-gaietako goimailako teknikari Patxi Fernández Elizalde hitz egingo dute gai horiei buruz.

Azkenik, araudi berria indarrean jarri ondoren zer lan egiten hasi diren azalduko du Energia, Meatzeta eta Industria Segurtasun Zerbitzuak, Nafarroako Gobernuaren tramitazio telematikoko sistemari aplikagarria zaion aztertzeko.

Jardunaldia doakoa da. Hari buruzko informazio guztia lortzeko eta izena emateko, egin klik esteka honetan: